

El cuidado de la naturaleza es parte de un estilo de vida que implica capacidad de convivencia y de comunión. Laudato Si 228

Cuidar del mundo natural y social en el que vivimos, cuidar de las personas, comprometernos contra la pobreza se convierte en una apuesta por el cuidado de la casa común. Cuando somos capaces de atender a nuestros comportamientos cotidianos y de tratar de irlos ajustando a lo que creemos bueno, justo y solidario, podemos ir viendo cómo las cosas cambian a nuestro alrededor. Quizá no sean cambios grandes, muy visibles, noticiables. Pero seguramente, son cambios duraderos, auténticos y muy importantes en la construcción de un mundo bueno, en la conversión de esas estructuras que provocan y mantienen la injusticia en nuestro mundo.



Todas las decisiones tomadas en nuestro día a día, ya sean de índole política, económica, cultural, social o teológica, tienen consecuencias directas, en la forma en que convivimos y compartimos los abundantes recursos de nuestra casa común. ‘Estar en casa’ significa velar por ese cuidado de la casa común, y aprender a administrar nuestra casa que es el planeta Tierra sabiendo que la práctica económica actual tiene un desarrollo finito dado que consume dilatadamente los recursos naturales y desequilibra la relación con la especie humana.

Nuestra sociedad fomenta un estilo de vida que no tiene sentido sin símbolos de posesión y de estatus, con un acentuado individualismo, una forma de vivir fragmentada y atomizada, cuando lo que tendríamos que hacer sería entender la felicidad más en términos de relación con las demás personas. Aprender estas dimensiones de la felicidad, más relacionales y no tan ligadas a la posesión, nos llevaría a aprender a vivir de una manera más austera y sobria, a vivir con lo que realmente necesitamos y así frenar el deseo insaciable y voraz de posesión. En otras palabras, vivir más sencillamente para que todas las personas puedan vivir. Y esto implica la necesidad de aprender nuevas pautas de consumo mucho más sostenibles.

“No hay que pensar que esos esfuerzos no van a cambiar el mundo. Esas acciones derraman un bien en la sociedad que siempre produce frutos más allá de lo que se pueda constatar, porque provocan en el seno de esta tierra un bien que siempre tiende a difundirse, a veces invisiblemente. Además, el desarrollo de estos comportamientos nos devuelve el sentimiento de la propia dignidad, nos lleva a una mayor profundidad vital, nos permite experimentar que vale la pena pasar por este mundo”. (LS,212)

Hay, por tanto, muchas cosas que podemos transformar en el día a día de nuestro entorno más próximo, comenzando por nosotros mismos y mismas y por nuestras comunidades, y que tienen que ver con cambios en el estilo de vida y de consumo responsable. Estos gestos son a la vez imprescindibles y transformadores. “A problemas sociales se responden con redes comunitarias, no con la mera suma de bienes individuales” (LS, 219).

Oración por nuestra tierra

Dios omnipotente, que estás presente en todo el universo y en la más pequeña de tus criaturas, Tú, que rodeas con tu ternura todo lo que existe, derrama en nosotros y nosotras la fuerza de tu amor para que cuidemos la vida y la belleza.

Inúndanos de paz, para que vivamos como hermanos y hermanas sin dañar a nadie. Dios de los pobres, ayúdanos a rescatar a las personas abandonadas y olvidadas de esta tierra que tanto valen a tus ojos.

Sana nuestras vidas, para que seamos protectores del mundo y no depredadores, para que sembremos hermosura y no contaminación y destrucción. Toca los corazones de las personas que buscan sólo beneficios a costa de las pobres y de la tierra.

Enséñanos a descubrir el valor de cada cosa, a contemplar con admiración, a reconocer que estamos profundamente unidos y unidas con todas las criaturas en nuestro camino hacia tu luz infinita.

Gracias porque estás con nosotros y nosotras todos los días. Aliéntanos, por favor, en nuestra lucha por la justicia, el amor y la paz. **Papa Francisco, 'Laudato Si', 2015.**

¿Qué puedo hacer yo?

Te invitamos a hacer realidad la campaña / Hator! Estás en casa con gestos que cuentan

	Reducir: disminuyendo tu consumo y simplificando tu vida, anteponiendo calidad a cantidad.
	Reparar: alargando la vida útil de tus enseres y aparatos domésticos.
	Reutilizar: visitando las tiendas Koopera, compartiendo con tu entorno
	Reaprovechar: no desperdiciando comida, buscando recetas de reaprovechamiento alimentario.
	Reciclar: a través de los contenedores de Koopera distribuidos por toda Bizkaia y mediante el reciclaje de residuos domésticos.
	Apostar por el empleo digno a través de tus comportamientos de consumo responsables: contrata servicios y productos de iniciativas de economía solidaria vinculados a Cáritas, a nuestra Iglesia y a otras organizaciones sociales (Lapiko catering, Biozaki, Koopera, Zaintzalan, Kidenda, Fiare...)
	Compromiso comunitario: Reflexiona y propón en tu comunidad, grupo... la adopción de medidas vinculadas a la sostenibilidad ecológica y cuidado de las personas (prácticas de reducción consumo..., contratación empresas solidarias...)

Natura zaintzea elkarrekin bizitzeko eta elkartasunean aritzeko gaitasuna eskatzen duen bizimodu baten parte da. Laudato Si 228

Bizi garen mundu naturala eta soziala zaintzea, pertsonak zaintzea, pobrezia aurkako konpromisoa hartzea, etxe komuna zaintzeko apustu bihurtzen da. Gure eguneroko portaerei arreta jartzeko eta horiek zuzen, bidezko eta solidariotzat dugunera egokitzeko gai garenean, gauzak gure inguruan nola aldatzen diren ikus dezakegu. Agian ez dira aldaketa handiak, oso ikusgarriak, nabarmenak. Baina, seguruenik, aldaketa iraunkorrak dira, benetakoak eta oso garrantzitsuak mundu on bat eraikitzeko, gure munduan injustizia eragiten eta mantentzen duten egitura horiek aldatzeko.



Eguneroko bizimoduan hartzen ditugun erabaki guztiek, berdin dio politikoak, ekonomikoak, kulturalak, sozialak edo teologikoak diren, zuzeneko ondorioak dituzte, elkarrekin bizi garen eta gure etxe komunekeo baliabide ugariak partekatzen ditugun moduan. ‘Etxean egoteak’ esan nahi du etxe komuna zaintzea, eta gure etxea, Lur planeta, administratzen ikastea, jakinik egungo jarduera ekonomikoak garapen mugatua duela, eta baliabide naturalen kontsumo oso handia egin eta giza espeziearekiko harremana desorekatzen duela.

Gure gizarteak jabetza- eta estatus-sinbolik gabe zentzurik ez duen bizimodua sustatzen du, indibidualismo nabarmenarekin, zatikatutako eta atomizatutako bizimoduarekin, eta, berez, zorientasuna besteekiko harremanarekin lotuta ulertu beharko genuke. Zorientasunaren dimentsio horiek –harremanezkoagoak eta jabetzarekin hain lotuta ez daudenak– aintzat hartzeak modu soil eta neurritsuagoan bizitzen ikasgaraziko liguke, benetan behar dugunarekin bizitzen, eta, hartara, jabetza aseegin eta suntsikorra geldiarazten. Bestela esanda, soiltasun handiagoz bizitzea, pertsona guztiak bizi ahal izateko. Eta, horretarako, askoz ere kontsumo-molde jasangarriagoak ikasi behar dira.

“Ez da pentsatu behar ahalegin horiek ez dutela mundua aldatuko. Ekintza horiek ontasuna isurtzen dute gizartean, eta horrek fruituak ematen ditu beti, egiazta daitekeenetik harago; izan ere, beti zabaltzeko joera duen ontasuna eragiten dute lur honetan, batzuetan modu ikusezinean. Gainera, jokabide horiek lantzeak norberaren duintasunaren sentimendua ematen digu, bizi-sakontasun handiagora eramaten gaitu, mundu honetatik pasatzea merezi duela esperimentatzeko aukera ematen digu”. (LS, 212)

Beraz, gauza asko alda ditzakegu gure ingurune hurbileko egunerokotasunean, geure buruarengandik eta geure komunitateetatik hasita, eta bizimoduan eta kontsumo arduratsuan gertatzen diren aldaketekin lotuta daude. Keinu horiek ezinbestekoak eta eraldatzaileak dira aldi berean. “Gizarte-arazoei sare komunitarioekin erantzuten zaie, ez banakako ondasunen batuketa hutsarekin” (LS, 219).

Gure lurraren aldeko otoitza

Jainko ahalguztiduna, unibertso osoan eta zure izakirik txikienarengan dagoena, Zu, zure samurtasunaz dagoen guztia inguratzen duena, zure maitasunaren indarra isuri gudan, bizitza eta edertasuna zain ditzagun.

Bakez bete gaitzazu, inor kaltetu gabe haurride gisa bizi gaitezen. Pobreen jainkoa, laguniezaguzu zure begietara hain baliotsuak diren abandonatutako eta ahaztutako pertsonak erreskatatzen.

Sendatu itzazu gure bizitzak, munduaren babesleak izan gaitezen, eta ez harrapariak, edertasuna erein dezagun, eta ez kutsadura eta suntsipena. Pobreen eta lurraren kontura etekinak baino bilatzen ez dituzten pertsonen bihotzak uki itzazu.

Irakatsiezaguzu gauza bakoitzaren balioa aurkitzen, mirespenez begiratzen, zure argi infinituranzko bidean izaki guztiekin sakonki lotuta gaudela onartzen. Eskerririk asko egunero gurekin zaudelako. Adoretu gaitzazu, mesedez, justiziaren, maitasunaren eta bakearen aldeko borrokan. **Frantzisko aita santua, 'Laudato Si', 2015.**

Zer egin dezaket nik?

Hator! Etxean zaude kanpaina balio duten keinuen bidez/errealitate bihurtzera gonbidatzen zaitugu

	Murriztu: kontsumoa murriztuta eta zure bizitza sinplifikatuta, kalitatea kantitatearen aurretik jarri.
	Konpondu: etxeko tresna eta aparatuen bizitza erabilgarria luzatu.
	Berrerabili: Koopera dendak bisitatu, zure ingurunearekin partekatu.
	Birbaliatu: janaria alferrik galtzen utzi gabe, elikagaiak birbaliatzeko errezetak bilatu.
	Birziklatu: Bizkaia osoan dauden Kooperako edukiontzien bidez, eta etxeko hondakinak birziklatuz.
	Enplegu duinaren alde egin, kontsumo-jokabide arduratsuen bidez: kontratatu Caritasi, gure Elizari eta beste gizarte-erakunde batzuei lotutako ekonomia solidario ko zerbitzuak eta produktuak (Lapiko catering, Biozaki, Koopera, Zaintzalan, Kidenda, Fiare...).
	Konpromiso komunitarioa: Proposatu zure komunitatean, taldean... iraunkortasun ekologikoarekin eta pertsonen zaintzarekin lotutako neurriak hartzea (kontsumoa murrizteko praktikak egitea, kontratazioa solidarioak...).